

KANALAK

Gure bezeroei makinaren inguruko informazioa iritsi ahal izateko, egokiena publizitatea egitea dela iruditzen zaigu. Horretarako, publizitate kartelak egin eta inguruko herrietan jarriko ditugu, hala nola, Ordizian, Lazkaon eta Beasaingo kaleetan zehar; izan ere, horiek dira inguruko herri handienak eta jende gehiagok ikusi dezakeenak. Horrez gain, publizitate kanpainak egingo ditugu, hau da, guk hemen inguruko pertsonaia ezagunei diruaren truke publizitate-kanpainak egitea eskatuko diegu, ahal bada beraien sare sozialetan iragarkiren bat jarriz.

Herrian bertan zabaldu ahal izateko, Udalaren Whatsapp taldean zabalduko genuke informazio guztia bertan jarriz, horrela bertako biztanleriak, hori zabalduko lukete beste taldeetara eta honela jendea erakarrita sentituko litzateke.

Horretaz gain, ahozko entzungairen bat ere egingo dugu, makinaren inguruko informazio gehigarria eman eta gure helburua makina honekin eta zer sustatu nahi dugun. Hortaz, data nagusi edo zehatz batzuetan, makinaren inguruko hitzaldi bat egingo genuke, gaur egungo kutsaduraren arazoen berri eman eta bigarren eskuko gauzen inguruan hitz egiteko. Aurkezpen gisa prestatuko genuke, irudiez beteta eta ulerterreza den hizkuntza ohia erabilita. Amaieran, galdetegi moduko bat zabalduko dugu elebidun, hau da, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Bertan bezeroen hobekuntzak jasoko ditugu gure makina denen gustuetara iristeko.

Gaur egun publizitatea egiteko beste iturri garrantzitsu bat, auto baten bidez megafoniatik herri ezberdinetan zehar gure makinaren berri ematea litzateke. Hau, ekonomikoki errentagarria litzateke, gastu gutxiago edukiz.